

Amonaren sukalde-txokoa

Zalantzak argitzeko Lantegia
2004

Txoko honetan amonaren errezetak dituzu. Azterketa sakon eta erabatekorik gabe, hainbat gai korapilotsuren inguruko gomendioak dituzu hemen, sukaldaritzako errezeta labur eta irakurgarrien antzera. On dagizula.

1. Gerundioak saltsan.
2. Esaldien nahaskia.
3. Baldintzak Boloniako erara.
4. Exonomastika sorbetea.
5. “Bat” Matxin Parrat.
6. Etxeko entsalada (eman, ikasi, baimendu, arbuiatu).
7. Elkartuen nahaskia (1).
8. Elkartuen nahaskia (2).
9. Elkartuen nahaskia (3).
10. Kalkoen taula.
11. “Profesorado” erregosia.
12. Zizka-mizka.
13. Puntuka nahas-mahas.
14. Loturak nolabait.
15. Laburdurak labur-labur.
16. Aditza hara-hona
17. Ortografia01
18. Ortografia02
19. Ortografia03
20. Ortografia04

GERUNDIOAK

(1) Erdarazko gerundioa maiz itzultzen da euskaraz '-larik' menderagailua erabiliz. Menderagailu horrek hainbat balio izan ditzake: modua, kausa, kontzesioa, denbora. Baina badirudi gehiegi erabiltzen hasiak garela edo behar ez den lekuetan. Hori dela eta, ondoko kontu hauek gogoan hartu beharra dago.

(2) Gaztelaniaz ere ez da gomendatzen gerundioa erabiltzea ondorioa adierazten duenean edo erlatibozko baten ordezkoa denean. Hala dio EFE agentziak (<http://www.efe.es>) 'Manual de Español Urgente' lanean: "Se debe evitar el llamado gerundio de posterioridad, tal como aparece en estas oraciones: Se cayó una casa, muriendo tres personas. Se sometió a votación la enmienda, aprobándose por unanimidad." "Este empleo es muy antiguo en la lengua, pero ha sido proscrito por los gramáticos, a partir de Andrés Bello, que lo juzgó como 'una degradación que deslució el castellano moderno'.

(3) Euskaraz ere bi erabilera horiek dira azken urteotan hedatu direnak. Ez dira egokiak. Hortaz, zalantzarik gabe pentsatzea komeni da ea ondoriozko baliorik duten edo erlatibozkoaren ordezkokoak diren. Bi esaldi hauek, esate baterako, ez dira egokiak:

* Autoak istripua izan zuen Zangotzan, lau lagun hil zirelarik.

* Araudi berria argitaratu da, ikasleen eskubideak zehazten direlarik.

Lehenean 'lau lagun hiltzea' aurrekoaren ondorioa da eta beste era askotara formula daiteke:

- Autoak istripua izan zuen Zangotzan eta lau lagun hil ziren bertan.
- Autoak Zangotzan izan zuen istripuan lau lagun hil ziren.
- Autoak Zangotzan istripua izan zuen eta lau lagun hil ziren istripuaren ondorioz.

Bigarrenean, berriz:

- Araudi berria argitaratu da, ikasleen eskubideak zehazten dituen.
- Araudi berria argitaratu da, ikasleen eskubideak zehazteko.

Edonola ere, biderik errazena dugu ondoriozkoetan 'eta' juntagailua erabiltzea eta besteetan erlatibozkoa erabiltzea.

(3) Baina badira 'aldiberekotasuna' adierazten duten esaldiak, '-larik' menderagailua egoki darabiltenak:

"Albiste edo iragarkiren batek bere magiazko maindirean biltzen gaitu eta geure iritziak bertan behera botatzeko gai izaten da, beti ere lana isilpean, oharkabean 'burutzen duelarik'.

(4) Bibliografia hautatua

'Manual de español Urgente', EFE agentzia (<http://www.efe.es>)

'Euskal Estilo Libururantz', X. Alberdi eta I. Sarasola (EHU/UPV)

'Erdarazko erlatiboen itzulpenaz' K. Biguri (SENEZ aldizkaria, 15, 1994)

(<http://www.eizie.org/euskara/argital/senez/15/aurkez.htm>)

Esaldien nahaskia

Testu zuzenaz idazteaz gain, testu egokiak idaztea komeni da. Horretarako, beteak beste, testu argiak idaztea komeni da. Gogoan hartu idazlana txukuntzeko orduan, beste norbaiti ematea komeni dela, irakur dezan. Adibide pare bat eskaini nahi dizkizuet hemen, azken egunotan han-hemen argitaratuak. Halakoetan erraz asmatzen da esanahia baina lehen begiratuan harrigarri gerta daiteke esaldia eta bigarren aldiz irakurri beharra izaten da maiz. Operazio horretan galtzen diren segundoak nahasgarri eta nekagarri gerta daitezke bat baino gehiagorentzat.

(1) “Jose Mari Satrustegi euskaltzain oso nafarra hil egin da gaur.”

Zer zen Satrustegi: ‘oso nafarra’ (eta euskaltzaina) ala ‘euskaltzain osoa’ (eta nafarra)?

Erraz konpon zitekeen beste era honetara:

“Jose Mari Satrustegi nafar euskaltzain osoa hil egin da gaur.”

(2) “Sare gizartearen ikaskuntza testuinguru berri honetan...”

Zer dio testuak: ‘Sare-gizartearen irakaskuntza nola gauzatzen den testuinguru berrian’ ala ‘Sare-gizartearen irakaskuntza-testuinguru berrian zer gertatzen den’

Testu horretan bigarrena adierazi nahi zen, ‘contexto DE apendizaje’ alegia, eta askoz errazago ulertuko da hori marratxoa erabilita (‘irakaskuntza-testuingurua’).

Kontua ez da idazkera sinpletzea edo infantilizatzea baina edonori gertatu zaio maiz testu bat erabat zuzena izan arren astun samarra dela sumatzea. Eta maiz lan pittin batekin konpon daiteke arazoa.

Baldintzak.

Baldintzak bi zati ditu ‘baldintza’ eta ‘ondorioa’ deitu ohi ditugunak (hizkuntza mailan), baina ikuspuntu logikotik kontu hori uste baino korapilatsuagoa gertatzen da. Azter ditzagun pragmatikarekin eta testuinguruarekin zerikusi duten zalantzazko kasu batzuk.

(1)

Iratxe etorriko balitz, denok ikusiko genuke. (orain/gero)
Iratxe etorri (izan) balitz, denok ikusiko genukeen/genuen. (lehen)

Bigarreanean erabilera biak dira zuzenak, bata zein bestea (genukeen/genuen)

(2)

Atzo, Iratxe ere etorri izan balitzaigu, gaur ez genuke nekerik hartu beharko kontu guztiak berriz azaltzen. (bald. LEHEN, ondorioa ORAIN/GERO)

Erabilera hori zuzena da euskaraz eta gaztelaniaz eta halaxe aitortu du Gramatika Batzordeak Jagonetan (2000-07-19)

Erdarazko adibide bat, Kixoten: “Yo bien te señalaría salario, si hubiera hallado en alguna de las historias... ejemplo”.

(3)

Ai, aberatsa banintz...!
Gustura janen nuke ogitarteko bat eskola bukatu baino lehen!

Esaldi horietan ondorioa eta baldintza testuinguruan daude, ez dugu esplizituki aipatu beharrik. Norbaitek nahi badu, dena den, ez da zail asmatzen (1. ...halakoak eta bestelakoak egingo nituzke; 2. Ahal banu/Aukera emanen balidate...)

(4)

(a) Alaitzera joaten bagara, denei erakutsiko diegu gure sasoia.
(b) Alaitzera joango bagara, goizeko 6etako autobusa hartu beharko dugu

Bigarren hori ‘bald./ondorio’ erakoa da itxuraz (formalki, baina ikus ezazue zer gertatzen den denboraren ardatzean:

(a) Alaitzera joan (lehenbizi) > gure sasoia erakutsi (gero, iritsi ondoren)
(b) goizeko 6etako autobusa hartu > Alaitzera iritsi (gero)

Eta gaztelaniaz ere desberdin dira

(a) Si vamos a Alaitz...
(b) Si hemos de / pretendemos / queremos ir a Alaitz...

Bigarren hori da –kotan itxura har dezakeena

- (a) Alaitzera joanez gero, denei erakutsiko diegu gure sasoi.
- (b) Alaitzera joatekotan, goizeko 6etako autobusa hartu beharko dugu

Noizbait zalantza izanez gero, oso erraza da ‘-kotan’ edo ‘-ko bagara’ horien ordeaz beste hau jartzea:

- (b) Alaitzera joan nahi badugu...
- (b) Alaitzera joateko (helburuzkoa)...
- (b) Alaitzera joan behar badugu...

Baina hara:

- (a) *Alaitzera joateko, gure sasoi erakutsiko dugu (???)

Auzi hau, dena den, zail samarra gertatzen da eta Euskaltzaindiak ez du oraindik sakon aztertu eta erabaki. Gainera, ezin dugu ahaztu, -kotan beste zerbait adierazteko ere erabiltzen dugula (asmoa, adibidez: ‘Tuterara itzultzekotan ziren’)

Bibliografia:

Jagonet zerbitzua:

http://www2.euskaltzaindia.net/Temas/Cns/Jagonet/ProJagConsultaFAQs_a.asp

Euskal Gramatika Osoa. Didaktiker (I. eta E. Zubiri)

Exonomastikaz bi hitz.

Kezka erakutsi didazue exonomastikaren inguruan, nahiz eta kanpoko izenen forma arauzko erabakitzea bezain zaila geratzen den Euskal Herriko izenak, pertsona-izenak eta halakoak erabakitzea. Bizpahiru ideia orokor plazaratu nahi ditut hemen kanpoko izenen euskaratzeaz. Halako izen batzuk erabakiak ditu Euskaltzaindiak (Arauetan daude, eta Hiztegi batuak ere jentilizioak jasotzen ditu) baina beste asko ez. Izen horiek era batera edo bestera erabaki ohi dituzte autore eta argitaletxeek. Nire gusturako, erreferentzia egokia izan daiteke Elhuyar argitaletxearen Munduko leku-izenak liburua.

(a) Kanpoko izen batzuek badute euskaraz tradizioa eta beste batzuek ez. Gaztelaniaz ere gauza bera gertatzen da. Baina tradizioa ezagutzea ez da erraza eta batzuetan 'kapritxoso' dela dirudi; gaztelaniaz Burdeos (egokitua) dugu, urrunago Poitiers (egokitu gabea) baina askoz urrunago berriz Amberes (egokitua, ez Antwerpen); eta ez dago hori ulertzerik Espainiak duela mende batzuk Inguru hartan izan zuen presentzia eta egin zituen sarraskiak gogoan hartzen ez badira. Euskaraz ere badira tradizioa dutenak (Tolosa Okzitanian, Bordele, Akize...) eta tradiziorik ez dutenak.

(b) Baian euskarak badu beste arazo bat. Gure tradizio hurbilena erdarazkoa da: euskaraz ere 'Nueva York' ikasi eta erabili dugu gehienok. badirudi halakoetan egokiena dela jatorrizkora jotzea (New York) baina Amberes (gaztelaniatik etorri eta guretzat tradiziozkoa) ala Antwerpen (bertoko hizkuntzari zor zaion begirunea gogoan hartuta). Horregatik, gure hizkuntzan tradizio idatziak du garrantzi handia, eta aspalditik dokumenta daitezkeen erabilerak.

(c) Maiz sistematikoki jokatu da: Ourense, Lleida... (bertoko hizkuntzari erreparatuz), nahiz eta batzuei asko gustatu ez.

(d) Badira beste arazo zehatzago batzuk. esate baterako artikuluekin zer egin (Al Kairo, A Coruña). Joera nagusia da artikulurik ez jasotzea (bide beretik 'Mundo' aldizkaria...). Egokitze fonetikoa ere arazobide gertatzen da: Valentzia, Murtzia...

(e) Arazoak oraindik handiagoak dira (eta ez euskararenak soilik) beste alfabeto batzuk (zirilikoa...) erabiltzen dituzten lekuetako izenak egokitzean: Jeltsin, Eltsin, Ieltsin... Aurreko hilabeteetan gaztelaniaz ere izan dira halako batzuk: *Al Jazeera jartzen zuen ingelesez CNN kateak, baina gaztelaniaz (eta euskaraz) Al Jazira behar du horrek; Bin Laden (ez Ben Laden) eta abar.

Kontu zaila da, beraz, baina eman dudan erreferentzia hura baliagarria izan daiteke. Dena den, eztabaidak etengabe gertatzen dira itzultzaile eta lexikografoen artean, izen zehatz bat erabaki behar denean

Arazoa euskararena bakarrik ez dela ikusteko oso polita da gaztelaniazko izenei erreparatzea: Nueva York (baina New Jersey), Pekin (Beijing?), Ucraina (zergatik ez bertoko Ukraina <Ukrainska...>?, euskaraz Ukraina), Islandia baina Nagaland...

Eta hortik aurrera, banan-banan eztabaidatu beharko genituzke adibideak.

BAT: hutsik ohikoenak

Beste azalpenik gabe, hona hemen hutsik ohikoenak (*), eta erabilera zuzenak (euskara batu estandarrean)

etxe batetan (* forma okerra)
etxe batean (forma zuzena)

(1) forma

*etxe batetan / etxe batean ('etxe baten' Bizk)

*etxe batetara / etxe batera

*etxe batetatik / etxe batetik

*lagun bateri / lagun bati

*adiskide batzu / adiskide batzuk

*neska batzuk lan egin dute / neska batzuek lan egin dute

*leku batzutan / leku batzuetan

*leku batzutara / leku batzuetara

*leku batzutatik/ leku batzuetatik

*batek baietz, besteak ezetz / batak baietz, besteak ezetz

(2) esapideak

*buruko min bat daukat...! / a zer buruko mina daukadan/dudan! (nolako...)

(3) sintaxia

*haurrak izatea bi(r)en artean hartu beharreko erabaki bat da
haurrak izatea bi(r)en artean hartu beharreko erabakia da

* irakasle jator batentzat naute (me tienen por un...)
irakasle jatortzat naute

“Atzo eman zen arazoa ongi ikasi dugu eta horrek baimentzen digu esatea zerga batzuk arbuiagarriak direla errentaren kalkulua egiteko orduan”

Ez dakit esaldi hori ongi ulertzen den baina barra-barra dabiltzan “eman”, “ikasi”, “baimendu” eta “arbuiagarri” hitzen erabilera oso badaezpadakoa dela aitortu beharra dugu. Hara:

(1) Bereiztea komeni da, besteak beste, “eman / dar” eta “gertatu / dar(se), suceder”

“Teresa me ha dado un libro / Teresak liburu bat eman dit”

“Los problemas que frecuentemente se dan entre los inmigrantes / Etorkinen artean maiz gertatzen diren arazoak”

(2) Bereiztea komeni da “ikasi / estudiar, aprender” eta “aztertu / estudiar, examinar”

“Hemos estudiado la lección 17 / 17. ikasgaia ikasi dugu”

“Hemos estudiado el problema que nos han planteado / Jarri diguten arazoa aztertu dugu”

Beraz “ikasi” egiten dugunean zerbaitetaz jabetu egiten gara eta “aztertu” egiten dugunean, zerbait arakatu edo ikertu egiten dugu. Ez nahasi biak.

(3) Bereiztea komeni da “baimendu / permitir, dar permiso” eta “aukera eman / permitir, hacer posible”

“El director nos ha permitido ausentarnos los miércoles / Asteazkenean alde egiteko baimena eman digu zuzendariak”

“El dinero nos permite viajar a otros países / Diruari esker, beste lurralde batzuetara joan gaitezke / Beste lurralde batzuetara joateko aukera ematen digu diruak”

(4) Zalantzaszkoagoa da “arbuiagarri” hitzaren erabilera, baina aukeran behintzat gogora dezagun euskaraz beste era batera ere esan daitekeela

“Las razones que has dado son absolutamente despreciables / Eskaini dituzun arrazoiak erabat arbuiagarriak (gaitzesgarriak) dira”

“Esa cantidad es despreciable en el cálculo de todo el presupuesto / Kopuru hori ez da aintzat hartzekoa aurrekontu osoaren balioespenean”

Hori dela eta, egokiagoa da hasierako esaldia beste era honetara idaztea

“Atzo gertatu zen arazoa ongi aztertu dugu eta azterketa horrek ematen digu aukera esateko zerga batzuk ez direla aintzat hartzekoak errentaren kalkulua egiteko orduan”

Errezeta: Elkartuen nahaskia (1)

- Hitza errepikatzen denean, oro har, marra jarri:

'behin-behineko', 'txiki-txikia'...

baita aldaketa fonetikoren badago ere

'handi-mandiak', 'txutxu-mutxutan', 'zehazt-mehatz'...

baita errepikatzen den hitzak atzizkia badu ere

'aldian-aldian', 'txitean-pitean', 'apurka-apurka'...

baina ez mararririk jarri hitz biak atzizki batek lotzen dituenean

'mendiZ mendi', 'kaleRIK kale'

Hori dela eta:

'batIK bat', 'bat-batean', 'behinIK behin'...

- Hitz horiek bikotea osatzen dutenean ere, marra jarri (hitz bien artean 'eta' juntagailua jar daitekeenean, alegia)

'mediku-erizainak', 'ikasle-irakasleak', 'zeru-lurrak'

Bikotea izen bereziz osatua dagoenean ere, marra jarri

'Ezkio-Itsaso', 'Gernika-Lumo'...

Baina ez dago 'eta' juntagailurik beste hauetan

'Iruñea/Pamplona', 'Arrasate/Mondragon'

behinIK behin / behin-behineko

batIK bat / bat-batean

Errezeta: Elkartuen nahaskia (2)

Hitza 'behi-esne' tankerakoa denean: marrarekin ('behi-esne') edo marrarik gabe ('behi esne)

(1) Gogoratu

(a) bikoiztapen eta bikoteetan: marra

poliki-poliki
maisu-maistrak

(b) mendetasunezkoetan ('behi-esne'): marra edo marrarik ez (zuriunea)

behi(-)esne

(2) Kontzeptua

maisu-maistrak = maisuak ETA maistrak

behi(-)esnea = behiAREN esnea
mendi(-)elurrak = mendiKO elurrak

Mendetasunezko elkartuek ('behi-esnea') bi osagai dituzte eta bigarrena da burua, gaztelaniaz ez bezala:

behi(2)-esnea(1) = leche(1) de vaca(2)
esne(2)-behia(1) = vaca(1) de leche(2) / lechera(2)

(3) Araua

- Idatzi marrarekin edo marrarik gabe (zuriunea utzita)
- Hitzaren bukaera -ia bada edo tradiziozko hitz bat (literatura, natura, kultura, eliza, burdina) bukaerako -a ken daiteke (marrarik jarri gabe)

Hortaz, ongi:

behi esnea
behi-esnea

biologia azterketa
biologia-azterketa
biologi azterketa
literatura jardunaldia
literatura-jardunaldia

literatur jardunaldia

Gaizki:

*behiesnea

*biologi-azterketa

*literatur-jardunaldia

(4) Oharrak

4.1. Oro har, elipsi edo atzizkiaren isiltzearekin osaturiko elkartuak dira hauek. Zaku berean sartzen dira ‘jende(-)multzoa, saltzaile(-)itxura, liburu(-)mota’, nahiz eta hitz horiekin (mota, multzo...) ohikoena den marrarik ez jartzea: jende multzoa, liburu mota...

4.2. Lehen osagaiaren bukaera –a denean arazoak gera daitezke berehala ulertzeko. Hona gaurko Euskaldunon Egunkariako adibide bat:

“Karrera, L.H. edota edozein formakuntza kurtso egin eta gero aukera bakarra dugu: prekarietatea”

Badirudi errazago (arinago) uler daitekeela honela:

“Karrera, L.H. edota edozein formakuntza-kurtso egin eta gero...”

Izan ere, testu luze samar batean ‘ekonomia’ irakurrita (hitz elkartua marrarik gabe jarri badugu) ez dugu berehalakoan jakiterik zer den: ‘economía, de economía, económico...’

‘Ekonomia ongi samar doa azken urteotan’ (la economía)

‘Ekonomia liburu bat erosi dugu’ (de economía)

‘Ekonomia arazoak dituzte herrialde horretan’ (económicos)

(5) Erabilera

5.1. Koherentzia formala gordetzea komeni da: egile berak testu berean berdin jokatzeko (irakurlea nahastu nahi ez bada: economía, económico...)

5.2. Marra ez erabiltzeko joera dago esparru batzuetan. Izan ere, kazetaritzako testu batzuetan, adibidez, testua zutabeetan antolatzen denean eta lerro saltoan justifikatzen ez direnean (hitzak moztu egiten direnean) nahasgarri gera daiteke horrenbeste marra: nola banatu ‘ekonomia-arazoak’ lerro bukaeran, ‘ekonomi-a-arazoak / ekono-mia-arazoak...’?

5.3. Marra erabiltzeko joera nabarmena dago esparru batzuetan, zientzia eta teknikaren munduan, esate baterako, batez ere hitz elkartua terminoa denean (adiera bakarreko kontzeptu bat adierazten duen unitate espezializatua): ‘hazkuntza-hormona, etxebizitza-politika...’

5.4. Gomendioa: idatzitako testua eman beti beste norbaiti irakur dezan eta aztertu ea lehenengoan ulertu duen edo hitz elkartuetan atzera buelta egin behar izan ote duen ulertzeko.

(6) Aztergaia

6.1. Marra bai edo ez eztabaidatzea baino garrantzizkoagoa gerta daiteke eztabaidatzea hitz elkartua ala ohiko sintagma osatu behar den. Denok bat etorriko gara (nik uste) ondoko hauetan

* energia solarra / eguzki-energia

* arazo okularrak / begi-arazoak, ikusmen-arazoak

baina

‘biologia-azterketa’

‘diru-arazoak’

Eta, jakina, bien bitartean ditugu zalantzazkoak (jo ezazue Iraultza industrialaren izeneko mezura, gai honi buruzko iruzkina irakurtzeko):

Iraultza industrialaren

Industria(-)iraultza, industri iraultza

6.2. Gainera, arazoa ez da bakarrik hitz elkartua edo izena + izenondoa. Beste batzuetan izenlagunaz ere balia gaitzke

gaitz hepatikoa (izena1 + izenondoa2)

gibel(-)gaitza (izena2 + izena1)

gibealeko gaitza (izenlaguna2 + izena1)

Eta halakoak banaka aztertu beharko ditugu

buruko mina

egunkari(-)saltzaile

ariketa fisikoa

...

(7) Bibliografia hautatua:

Ensunza, Martxel (1989) “Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak”. Euskera 1989-2 (577-596)

Zabala, Igone (1997) “Argumentu harremana / eremu harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila”, in Nazioarteko Terminologia Biltzarra. Donostia HAEE-UZEI (535-556)

Elkartu berezi batzuk

(1) 'Emakume sendagilea'

Hitz elkartu hauek (izena + aditz-izena + egile atzizkia) anbiguoak gerta daitezke. Izan ere, goiko adibidea bietara uler daiteke: 'emakumea sendagilea da' edo 'emakumeen sendagilea'. Hortaz, marrarekin bereizi:

'emakume sendagilea': emakumea sendagilea da

'emakume-sendagilea': emakumeen sendagilea

(2) 'Begi-okker'

Hitz elkartu hori ez dugu nahasi behar 'behi(-)esne' edo 'begi(-)nini' bezalakoekin. Haiek mendetasunezkoak genituen ('behiaren esnea', 'begiaren ninia') eta bietara idatz zitezkeen: marrarekin ('behi-esne', 'begi-nini') edo gabe ('behi esne', 'begi nini'). Baina 'begi-okker' beste era batera ulertu behar da, ez baita 'begia' ez 'okerra'; hitz horrek 'begi okerra duen norbait' adierazten du. Halakoak dira 'hanka-motz' (hanka motza duena), 'belarri luze' (belarri luzeak dituen), edo adiera metaforikoa dutenak: 'eskuzabal...'.
Hortaz, ez nahasi 'belarri(-)zulo' (zuloa da) eta 'belarrimotz'.

Hortaz, ez nahasi 'belarri(-)zulo' (zuloa da) eta 'belarrimotz'.

Hitz hauek lotuta edo marrarekin idatzi behar dira. Oro har, marrarekin idatzi ohi ditugu baina badira batzuk lexikalizatuak daudenak eta lotuta idazten direnak. Kontsulta egin Hiztegi Batuan. Hona adibide batzuk

belarri(-)zulo
begi(-)nini

begi-okker
belarri luze
belarrimotz
besomotz
eskuzabal
hanka-motz

(3) 'Danubio ibaia'

Aposizioak dira: 'ibaiaren izena Danubio da'. Beti idatziko ditugu banatuta eta marrarik gabe. Oro har, izen berezia aurretik eta izen generikoa atzetik (badira salbuespenak: osaba Tomas, amatxi Teresa...)

Erdaraz ohikoak dira 'el Danubio', 'el Adi' eta halakoak, baina euskaraz ez dago artikulua jartzerik: *Danubioa, *Adia, *Ebroa > Danubion zehar ibili ginen, Adiraino iritsi ginen, Ebro da Euskal Herriko ibairik handiena...

agente politikoak	politikariak, partiduak
aktiboan dago	badihardu, badabil
arropa hobeto geratuko zaizu	arropa hobeto edukiko duzu...
asumitu	bereganatu, bere egin
azkenik esan bi istripu gertatu direla	amaitzeko, azkenik... bi istripuren berri emango dugu
balantzea egin	balioetsi, balioztatu...
baldintza fisikoak	sasoian egotea
balorazio positiboa	ontzat jo du, ondo hartu du...
baloreak aldatu dira	balioak aldatu dira
berak jokatzeko duen papera	zeregina...
bere balorazioa eman zuen	iritzia eman zuen
blokeoa partzialki altxatu	debekua aldeztu indargabetu
dinamizatu	bultzatu, suspertu...
egilearen filosofia	pentsaera, pentsamoldea, ustea
egoera erreparatu	egoera aztertu, egoeraz gogoeta egin, zertan den aztertu
ehun puntutan salgai	ehun saltokitan eskuragarri
enteratu	jakin, jantzi
epea moztu	epea eten, laburtu
Ertzaintzaren aktuazioa	jarduna, ekina, ...
gaia sakondu	areago, sakonago, hobeto... aztertu
gaia, tema	mintzagaia, hizpidea, e.a.
gainbizitzea lortu du	zelan edo alan aurrera atera, nekez bizitzea, bizirik dirau
gauza puntualetan, aldaketa puntualak	jakinak, zehatzak...
gehiengo soziala	herritar gehienak, ia gizarte osoa...
Gobernua halako legetik desmarkatu da	ez duela zerikusirik izango adierazi du
Gobernutik lortu nahi da	Gobernuak lortu nahi du
hauteskunde prozesuan	hauteskundeetan
hilik gertatu da	hil da
horrelako egoera batean	horrelako egokieran, egokiera horretan...
horrelako kasuetan	horrelakoetan
ideia ezberdinak (galizismoa)	hainbat pentsaera, ikuspegi guztiak
ikasleen mailan (a nivel de)	ikasleetan, ikasleen artean...
irakurlego zabalarentzat idatziak	mota guztietako ,orotariko irakurleentzat
irizpide ekonomizista	ekonomi irizpide
kazetariak ematen dioten tratamendua	gaia nola lantzen duten

kontrako balorazioa (negatiboa)	gaitzetsi
matrikulaziorako prozedura	nola matrikulatu...
mediatikoa	komunikabide-
mentalizatu	jabetu, bereganatu, ohitu...
ministroen mailan	ministroen artean
minutu batean kontatuko dizuegu	hemendik minutu batera, minutu garrenean...
morrontzan erori	morroi bihurtu
nire kaligrafia txarra da	idazkera
orquestra gidatu	zuzendu, agindu (anglizismoa)
planteatu	sortu, asmoa aurkeztu...
reintsertzioa	(ber)gizarteratzea
sorpresa bat izan da	harrigarria izan da, horrek harritu nau
ze irakurketa egiten duzu?	zer deritzozu?

Profesorado: irakaslego, irakasleria, irakasletza, irakasleak?

Adibide batzuen bidez aztertuko dugu arazoa. Adibide horietan hala itzuli dut

> *profesor: irakasle*

> *profesorado: irakaslego, -eria, -tza, -ak*

(1) *El profesorado es una labor muy importante en la sociedad*

Lanbidea-edo adierazten du (orobat, nolakotasuna adierazten denean: *'anaigoa / hermandad'*)

1a. *Irakaslegoa garrantzi handiko zeregina da gizartean*

1b. *Irakasletza garrantzi handiko zeregina da gizartean*

Medebaldean *'-tza'*, ekialdean *'-go'*. Bakoitzak egin dezala aukera.

(2) *El profesorado ha disminuido el 20% en los dos últimos años*

Irakasle-multzoa adierazten da, ez nolakotasuna, ez lanbidea.

2a. *Irakasleria % 20 gutxitu da azken bi urteetan*

2b. *Azken bi urteetan %20 gutxitu dira irakasleak*

Bietara joka daiteke:

'Nafarroako biztanleria... / Nafarroako biztanleak...'

'A3 telebistaren ikusleria ez omen da lehiaketetz fidatzen'

'A3 telebistaren ikusleak ez omen dira lehiaketetz fidatzen'

'A3 telebista ikusten dutenak ez omen dira lehiaketetz fidatzen'

Baina badirudi gaztelaniaz gero eta *'-ado'* gehiago erabiltzen dela (batzuetan hizkera sexistaren kontrako agindu esplizituari men eginez: *'el profesorado se dirigirá al alumnado...'*, *'-os/-as... -os/-as'* arazoak saihesteko) eta euskaraz ere ahaztu egiten zaigula aski dela plurala.

**'irakaslegoak asko irakurtzen du'*

'irakasleriak asko irakurtzen du' (?)

'irakasleek asko irakurtzen dute'

Eta, beraz:

**"Euskal herriko biztanleGOAK euskararekin zein jarrera duen aztertzea da gure helburua"*
(OKERRA)

"Euskal herriko biztanleRIAK euskararekin zein jarrera duen aztertzea da gure helburua"
(ZUZENA)

"Euskal herriko biztanleEK euskararekin zein jarrera duTen aztertzea da gure helburua"
(ZUZENA eta OHIKOENA)

Ez da beti erraz asmatzen hitzak loturik ala bereiz idatzi behar diren (hizkuntza guztietan dugu arazo hori, jakina). Izan ere, hitza loturik idazten da baina ez da erraz erabakitzen noiz dugun hitz bat edo bi hitz. ‘Hitz’ berbaren definizioak ere agerian uzten du arazoa: “bi zuriune artean idazten duguna da hitza” (ortografiaren ikuspegitik); baina gero “hitz egin” aparte idazteko esango digute, bi hitz direlako. Hala jokatzeari iruzur egitea dela pentsatuko duzue, baina gertatzen dena da azpian arazo teoriko handi samarra dagoela. Beraz, onena da gogoan hartzea ortografia konbentzio arbitrarioa dela eta zalantzazko kasuetan hiztegi arau-mailera (Hiztegi Batura) jo behar dugula. Duela ez horrenbeste urteko gaztelaniazko testuetan ere ‘ferro-carril’ eta halakoak irakur zitezkeen, baina gaur egun edonorentzat da hitz arrunta (lexikalizatua, egin) ‘ferrocarril’ (nahiz eta hizkuntzan jantzia dagoenak badakien hitz hori bi osagai elkartzat osatu dela. Euskaraz ere ez da erraz erabakitzen noiz har daitekeen lexikalizatutzat hitz bat (egintzat) eta hiztegiara jo beharra dugu.

Dena den, elkartuak berrikusten ditugunean emango ditugu lagungarri gerta daitezkeen arau xume batzuk: hitza errepikatzen denean marra jarri (handi-handia, zizka-mizka, poliki-poliki, aldian-aldian); bi hitz horien artean lotura hizkiren bat dagoenean, marrarik ez (mendiz mendi, kalerik kale); hitzaren osagaiak zein diren ikusten ez denean, lotuta (auskalo, derrigorrean); osagaiak gardenak direnean, banatuta (hitz egin, parte hartu). Baina salbuespen asko dago eta banan-banan erabaki ohi dira halakoak. Aurrerago zehaztuko dugu gehixeago gai hau, baina hona hemen orain zalantzazko gerta daitezkeen hitz batzuen zerrenda laburra:

astebete
badaezpada
bat-batean
batez beste
batik bat
behin betiko
behin-behineko
behinik behin
dena den
edota
esate baterako
eta abar (etab.)
ez ezik
ezin hobea
halere (lokailua) / hala ere
hitz egin
honezkero, horrezkero, harrezkero
izan ere
nahitaez
noizean behin
nonahi, non-nahi
oro har

(1) Zenbakiz adieraz daiteke kopurua edo beste zerbait.

Kopurua adieraztean zenbatzailea darabilgu: 35 liburu ('zenbat liburu', alegia)

'451H makina' esatean, berriz, ez dugu 'zenbat' adierazten, makinaren izena baizik

2002.ean gaudela esatean zein urtetan gauden esaten dugu (ez 'zenbat' urte)

(2) Zenbatzaile ez direnean (urteak...) ez dago puntua jartzerik, milakoak eta ehunekoak bereizteko.

Beste kontu bat da ea kardinal edo ordinal diren: ordinal direnean amaieran puntua behar dute.

Kontuz, dena den, gerta baitaiteke gaztelaniazko kardinal-ordinal sistema nahasgarri

El año 2002 / 2002. urte / 2002a

Soy el 37 de esta lista de espera / Itxaron-zerrenda honetako 37.a naiz

El factor XII de la coagulación / Koagulazioaren XII. faktorea

Juan XXIII / Joan XXIII.a

(3) Zenbatzaile direnetan ez dago puntua jartzera behartuko gaituen legerik, baina ohikoa da zenbaki handiak hirunaka bereiztea

Gaztelaniaz (eta euskaraz) ohikoena da milakoen eta ehunekoaren artean puntua jartzea eta unitate eta hamarrenen artean, koma.

Ingelesez alderantzia jokatzen dute: koma eta puntua.

Gero eta ohikoagoa da (testu-prozesadoreetan eta) zenbaki handiak hirunaka bereiztea eta tartean zuriune labur zatiezina jartzea

(Word-en, adibidez: Txertatu > Ikurra > Karaktere bereziak > Zuriune zatiezina; Insetar > Símbolo > Caracteres especiales > Espacio de no separación)

(4) Egia esan, zenbakiaren eta ehunekoaren markaren artean ere (gaztelaniaz atzetik, euskaraz aurretik) horixe da gomendatzen dena: zuriune zatiezina edo 'espacio de no separación'. Horrela, tartetxo geratzen da markaren eta zenbakiaren artean baina unitate hori (% 5, adibidez) ez da banatzen lerro-saltoetan. Dena den, testu hutsa erabiltzen ari garenean (ez Word edo halako formaturen bat) ezin dugu halako tarte berezirik txertatu eta horregatik argitalpen askotan lotuta idaztera jotzen dute (lerro saltoan bana ez daitezen); beste batzuetan, orde, banatuta aurkitzen da (aztertu Egunkaria [Egunero] eta Argia, esate baterako).

(5) Euskaltzaindiak ez du erabaki data jartzerakoan urtea nola idatzi behar den, puntuarekin ala punturik gabe, nahiz eta 37. araua irakurtzean bestela ere pentsa dezakeen batek baino gehiagok. Datari buruzko arau hori bereziki hilabeteen idazkeran zegoen erabilera okerra zuzentzera etorri da, nahiz eta data osoa jartzerakoan urtearen idazkeraren aukera bat bakarrik erabili, hots, punturik gabekoa.

Beraz, data jartzerakoan, zilegi da bi eratan egitea. Adibidez:

Bilbon, 1996ko apirilaren 17an.

Bilbon, 1996.eko apirilaren 17an.

(Gramatika batzordearena adierazpena)

Beraz, 2002.eko, 2002ko, 2002.a, 2002a, 2002

Beste kontu bat da 2002 aposizio modura erabiltzen dugunean zer gertatzen den. Uste dut polikiago aztertu beharko litzatekeela gai hori eta ez dela erraz erantzuten. Azken finean, uste dut hala formulatu beharko genukeela galdera: nola esan daiteke euskaraz 'el año 2002'? Baina konpara ezazue beste honekin: 'el día 15'

Nekez erantzungo du inork '15 eguna'; izan ere zenbakia izenaren aurrean jartzean berehala identifikatzen dugu zenbatzaitzat. Badakit izenaren ondorengo mugatzaileak bereizten duela egitura hori '15 egun' egituratik eta, hortaz, '2000 Plana' bezalakoak erabiltzen direla administrazioan, baina kontu nahasgarri samarra gertatzen da (arazo pragmatikoa dela uste dut, hau da, ez horrenbeste zuzentasun gramatikal kontua eta bai ulergarritasunarena) eta nekez erabiltzen ditugu halakoak.

Hain zuzen ere, errazago egingo dugu euskaraz 'hilaren 15a', harako 'el día 15' hura itzultzeko. Eta urteetan ere errazago '2002. urtea' edo '2002a', nahiz eta gramatikaltasunaren mugak arakatzen urrunago joan gintezkeen.

Postposizio eta beste hitz batzuen lotura

Aurreko fitxa batean ikusi dugun “ikusTEagatik / ikusIagatik” bereizketarekin gertatzen den bezala (-gatik / -arren atzizkiari erreparatu eta lotura galtzen dugu bistatik), postposizioekin eta beste hitz batzuekin ere badirudi gero eta hiztun gehiagok galtzen duela lotura hizkiaren arrastoa. Adi bada, eta ongi bereizi (adibide batzuk):

mendiAN zehar = mendiTIK zehar
mendiAN barrena = mendiAN zehar
mendiAREN barnean = mendiaren barruan = mendiAREN barrenean (1)
(zergak BARNE: “ongi” / *zerga BARNE daude: “gaizki”)
mendiAREN barrenean (2) = mendiAREN ertzean
mendiAZ gain = mendiAZ gainera (hura ez ezik...)
mendiAREN gainean = mendiARI buruz
(*mendiAREN buruz: “gaizki”)
mendiAREN inguruan, azpian, alboan...
mendiTIK hurbil, urrun
mendiAREKIN batera (*mendiAZ batera: “gaizki”)
esandakoAREKIN ados (*esandakoAZ ados: “gaizki”)
kafea esneaREKIN (kafea esneagaz, kafesnea): *kafea esneAZ: “gaizki”

Oinarrizko kontzeptuak

(1) Laburtzapena jatorrizkoaren forma aldaketa da, jatorrizkoari lotua
- laburdurak: or. (orrialdea)
- siglak: AEB (Amerikako Estatu Batuak)

Laburdurak puntuarekin idazten dira, siglak letra larriz eta punturik gabe

(2) Sinbolo eta ikurrak arbitrarioak dira eta balio sinbolikoa dute
g (gramo); Π (3, 1415...); F_e (burdina)...

Sinboloen forma estandarra da (nazioartekoa)
cm (zentimetro); H (ospitalea); kg (kilogramoa/ kiloa)

Sinbolo eta unitateak punturik gabe idazten dira: m (metroa), g (gramoa)

Oharrak:

- laburtzapenak lexikalizatu egin daitezke: A. I. D. S. > AIDS > aids / HIES > hiesa
- ahal dela ez erabili laburdurak (batez ere testu baten barruan):

alkate jn.-k > alkate jaunak

27. or.-ko > 27. orrialdeko

etab.-etan > eta abarretan

Zenbait laburdura

HELBIDEAK	EGUNAK	HILABETEA
jn. (jauna) esk. (eskuina) pl. (plaza) zum. (zumardia) bas. (baserria) and. (andrea) ezk. (ezkerra) etorb. (etorbidea) k. (kalea, karrika) z.g. (zenbakirik gabea) pas. (pasealekua) zehb. (zeharbidea) etx. (etxea) ind. (industrialdea) pol. (poligonoa)	al. (astelehena) ar. (asteartea) az. (asteazkena) og. (osteguna) ol. (ostirala) lr. (larunbata) ig. (igandea)	urt. (urtarrila) ots. (otsaila) mar. (martxoa) api. (apirila) mai. (maiatza) eka. (ekaina) uzt. (uztaila) abu. (abuztua) ira. (iraila) urr. (urria) aza. (azaroa) abe. (abendua)
BESTE BATZUK	BESTE BATZUK	
adib. (adibidez) or. (orrialdea) fra. (faktura) koop. (kooperatiba) tel. (telefonoa) etab. (eta abar) etc. (etcetera) id. (idem)	A.M. (<i>ante meridiem</i> , eguerdi aurre) P.M. (<i>post meridiem</i> , eguerdi oste) K.a. (Kristo aurreko) K.o. (Kristo ondorengo)	

Aditza non jarri

Badakigu aditzak eta galdegaiak banatu ezin den unitatea osatzen dutela, baina hortik aurrera zalantzak izaten ditugu ea aditza non jarri behar den esaldian. Are gehiago, aditza atzean (galdegaiaren ostean) jartzen irakatsi digute eta arau horrek gehiegikeria ekarri du aspaldi honetan: aditza perpausaren edo esaldiaren atzealdean jartzea.

Baina ez da hori egokia. Izan ere, [galdegai-aditz] unitate horretatik aparteko mintzagai asko egon daiteke esaldian eta ez da komei mintzagai horiek aditzaren aurrean pilatzea. Hona hemen adibide batzuk (EUSKAL ESTILO LIBURURANTZ. GRAMATIKA, ESTILOA ETA HIZTEGIA. X. Alberdi eta I. Sarasola. EHU).

Saia zaitetz honako esaldi desegoki hauek era egokiagoan jartzen: azpian dituzu esaldi egokiak.

Desegokiak

- *Gizon bat, antzinako arropa dotorez jantzia, ikusi nuen geltokian.*
- *Autore honen ustez, azterketa bakar batekin, ondorio orokorrak ateratzea ezinezkoa da.*
- *Nire ustez, txiki-txikitatik haurrak telebista ikusteko hezi behar ditugu.*
- *Duela 150 urte, eta ez lehenago edo beranduago, Teoria Zelularra plazaratua izateak hainbat arrazoi historiko baditu.*
- *Administrazioak herritarren eskariak erantzuna izan dezan eta hizkuntza dela-eta inor bereizia izan ez dadin bitartekoak jarri behar ditu.*

Egokiak

- *Gizon bat ikusi nuen geltokian, antzinako arropa dotorez jantzia.*
- *Autore honen ustez, ezinezkoa da azterketa bakar batekin ondorio orokorrak ateratzea.*
- *Nire ustez, txiki-txikitatik hezi behar ditugu haurrak telebista ikusteko...*
- *Teoria Zelularra duela 150 urte —eta ez lehenago edo geroago— plazaratua izateak hainbat arrazoi historiko ditu / baditu hainbat arrazoi historiko.*
- *Administrazioak bitarteko egokiak jarri behar ditu herritarren eskariak erantzuna izan dezan eta hizkuntza dela-eta inor bereizia izan ez dadin.*

Azalpena (galdegaia, aditza, mintzagaiak)

Gizon bat ikusi nuen geltokian, antzinako arropa dotorez jantzia.
Autore honen ustez, ezinezkoa da azterketa bakar batekin ondorio orokorrak ateratzea.
Nire ustez, txiki-txikitatik hezi behar ditugu haurrak telebista ikusteko...
Teoria Zelularra duela 150 urte —eta ez lehenago edo geroago— plazaratua izateak hainbat arrazoi historiko ditu / baditu hainbat arrazoi historiko.
Administrazioak bitarteko egokiak jarri behar ditu herritarren eskariak erantzuna izan dezan eta hizkuntza dela-eta inor bereizia izan ez dadin.

Ortografiaz (1)

Galdera:

Hatz hitza "H"z idazten bada, zergatik atzamarra, atzazala... "H" gabe idazten dira? Suposatzen da hitz batetik eratorriak diren hitzek mantendu behar zutela jatorrizko hitzaren ortografia, ez da? Beste galderatxo bat: zilegi da 'atzamazkola' hitza erabiltzea?

Erantzuna:

Erabaki beharko genuke zer nahiago dugun, hitzen idazkera etimologiaren arabera edo erabilerari begira erabaki. Hona gaztelaniazko adibide bat (barkatu halako adibideak gustuko ez dituzuenok): 'murciélago' ala 'murciégalo'?

Oro har, barre ere egiten diegu (ezjakintzat hartuta) 'murciégallo' esaten dutenei. Baina, nondik dator hitz hori? Latinez 'mur caecus' zen ('sagu itsua', alegia). Eta hortik 'mur cegalus' eta diptongazioz 'murciégallo'. Baina gaur egun 'Gabriel/Grabiél' bezalako hitzetan gertatzen den bezalaxe, hartan ere 'murciegallo/murcielago' nahastea sortu zen eta azkenera orain darabilgun forma nagusitu. Eta hona orain nire galdera: 'murciégallo' esna beharko genuke? Ez dirudi hori denik ohiko jarrera. Hizkuntza gehienetan hartzen da erabilerari ('murciélago') etimologiaren aurretik ('murciégallo'). Bestalde, etimologia ez da beti erraz erabakitzen: 'carnicería' ala 'carnecería'? Askok uste dute 'carnecería' beharko lukeela eta hala jartzen dute beren harategietan. Baina ez dira konturatzen 'carne + -ería' 'carnería' edo izango litzatekeela ('frutería' bezala) eta 'carnicería' dela zuzena, ez baitator 'carne'tik 'carniza'tik baizik (bizkaierazko 'haragia' eta 'okela' bezala)

Euskaraz 'atzamar' eta 'atzazal' dira tradiziozkoak eta erabili direnak. Biak erabili ohi dira bizkaieraz (batez ere): 'atzamar' XIX. mendetik aurrera eta 'atzazal' XVIII. Nahikoa tradizio luzea dirudi horrek! Eta gerora ere hala erabili dela dirudi. Baina horra non datorren garai berria eta ikastolekin eta beste hainbat konturekin batera gure hiztegia txukuntzen, garbitzen eta etimologizatzen hasten gara eta horra non agertzen den 'hatzamar' 1975eko 'Ikastolako hiztegian' (pentsa orain, txukundu eta etimologizatu nahian 'murciégallo' eta halakoekin hasiko bagina!). Garai hartan askoz idazten zuten 'haizkora' ustez eta lehen osagaia 'haitz' zela; eta bigarrena? Zer ote da '-ora' hori? Ez ote da 'carne/i-ceria' hitzarekin bezala gertatzen.

Beste kontu bat da zer egin behar den hitz sortu berriekin. Nik euskaraz 'piedra de cauterizar' sortu nahi badut, jatorrizko grafia errespetatuko dut osagaietan: 'erre-harria'. Baina hitz hori berria dugu, ez da inoiz erabili euskaraz eta ez du tradiziorik.

Ortografia (2)

Galdera:

Ortografia araua zaila da, salbuespez beterik dago.
Zergatik 'herri' eta 'ertzaina'?

Erantzuna:

Hizkuntza bera salbuespenez beterik dago (hizkuntza guztiak) hainbat eta hainbat eragileren ondorioz (aldaketa diakroniko, diastratiko eta abarreko guztien eraginez). Ikusi besterik ez dago nola guri gaztelania estandarra natural-naturala gertatzen zaigun baina ez beste inguru batzuetan (Andaluzian, Amerikan). Eztabaida sutsuak izan ohi ditugu amerikarrekin halako edo bestelako hitzen inguruan (parte hartu dudak azkena: nola itzuli ingelesezko 'ballon'? 'globo' -Espainian- edo 'balón' -Argentinan).

Pentsa daiteke hizkuntza 'logikoa' mesedegarria litzatekeela, baina ez litzateke erreala izango (artifiziala eta arrotza). Logikaren izenean sortu dira 'emakumeekiko zapalkuntza' ('emakumeen zapalkuntza' ren ordez), edo 'uretango neurketak' ('mediciones en agua'). Beste horrenbeste gertatzen da arau grafikoarekin. Batzuek pentsatzen dute egokiagoa litzatekeela 'honez gero' eta 'horrez gero' idaztea; eta hirugarrena, zein litzateke: 'harez gero'? 'harrez gero'??? Badira euskaldunak 'eskupeta' esaten dutenak ustez 'esku'tik datorrela. Eta azken adibide hori norbaiti barregarri gertatu bazaio, kontuan hartu dezala zenbat euskaldunek uste dut (uste okerra) 'begiratu' hitza 'begi'tik datorrela (vigilatu-m > bigiratu > begiratu). Etimologia eta paradigma lexiko formalen kontua oso irristagarria gerta daiteke eta kontu handiz erabiltzekoa. Grafia etimologiaren arabera erabakiko bagenu, alde batetik erraztu egingo genuke (familia lexikoak modu jakin batean idatziz) baina bestetik zaildu (etimologista bihurtu beharko genuke denok, edo ortografiaren ordez etimologia ikasi). Aitortu beharra daukat ez naizela kontu horietan oso jantzia, garai batean nik ere 'nigromancia' 'negro'tik zetorrla uste nuela, eta ez nuela ulertzen zergatik espainieraz erabili behar dugun 'yegua' 'caballa' erabili beharrean. Bestalde, oso osasungarri gerta daiteke Larramendiren hiztegia bisitatzea ('batería', voz de indudable origen vasco: bat + -eria). Halaxe bideratu dugu gure hizkuntza, mito artean Tubaletik aurrera.

Ortografia (3)

Galdera:

Arau logiko bat mesedegarri gertatuko litzateke ortografia irakasteko.

Erantzuna:

Hona hemen nire iritzia (horixe baino ez da, iritzi bat)

Ortografiaren ikaskuntza eta irakaskuntza oso nekagarriak gerta daitezke (guk baino hobeki dakite hori frantsesek esate baterako). Erantzun modura mila 'ortografia didaktiko' dago merkatuan eta, oro har, uste dut baliagarriak gertatzen direla. Baina hona 'manual de ortografía' horietako batetik hartutako pasarte batzuk (gaztelaniarenak):

1. Deben escribirse con g ...

Las palabras que terminan en -gen, -gélico, -genario, -géneo, -génico, -genio, -génito, -gesimal, -gésimo, -gético, -giénico, -ginal, -gíneo, -ginoso, -gismo, -gia, -gio, -gión, -gional, -gionario, -gioso, -górico, -ígena, -ígera.

Los verbos terminados en -igerar, -ger, -gir.

2. Deben escribirse con b ...

Las palabras que comienzan por las siguientes sílabas y a continuación de las mismas: tri-, tur-, nu-, su-, cu-, ca-, gar-, ver-, si-, al-, ur-, tu-, ti-, to-, ra-, ri-, tre-, gu-, lo-, so-, la-, car-, ta-, ro-, sa-, te-, tra-, ce-, ha-, he-, hi-, ho-, hu-, ru-.

Se escriben con v:

2.1.- Las palabras que comienzan por ad-.

2.2.- Los adjetivos terminados en -ava, -ave, -avo, -eva, -eve, -evo, -iva, -ivo.

2.3.- Los verbos terminados en -servar.

2.4.- Las formas de los verbos que no tienen b ni v en su infinitivo.

2.5.- Las palabras compuestas que comienzan por -vice, -villa, -villar.

2.6.- Las palabras terminadas en -viro, -vira, -ívoros, -ívora.

2.7.- Después de b, d y n.

2.8.- Las voces compuestas o derivadas de otras que llevan v.

2.9.- Las palabras que comienzan por ave-, eve-, eva-, evi-, evo-.

2.10.- Las palabras que comienzan por ven-, ver-, ves-, vis-.

2.11.- Las palabras que comienzan por las siguientes sílabas y a continuación inmediata de las mismas: di-, jo-, le-, en-, cla-, se-, con-, mo-, fa-, sal-, sel-, sil-, sol-, ne-, ni-, na-, no-, mal-, lla-, lle-, llo-, llu-, pra-, pre-, pri-, pro-, par-, per-, por-, ol-, pa-, pol-, de-, cal-, cur-.

3. Deben escribirse con h ...

3.1.- Las palabras que comienzan por el diptongo hie- pueden escribirse como aparece antes o ye-, salvo que pueda, en este segundo caso, dar lugar a confusión.

3.2.- Las palabras que comienzan por el diptongo hue- se escribirán siempre con h; pero, en el caso de que una palabra relacionada con la familia léxica comience por o-, esta voz se escribirá sin la h.

3.3.- Las palabras que comienzan por hum- seguida de vocal se escriben con h.

- 3.4.- Las palabras que comienzan por hidro-, hidra-, hipo-, hiper-, se escriben con h.
- 3.5.- Las palabras que comienzan por los diptongos hia-, hui-, se escriben con h.
- 3.6.- Los verbos haber, hacer, hallar, hablar y habitar se escriben con h.
- 3.7.- Las palabras que comienzan por hosp- se escriben con h.
- 3.8.- Las palabras relacionadas con otras que llevan h se escriben con h, excepto en los casos de la regla segunda.
- 3.9.- Las palabras que en latín se escribían con f- inicial o que en castellano están relacionadas con otras que lleven la f- se escriben con h- inicial.
- 3.10.- Se escriben con -h- intercalada los vocablos «ahora», «ahorrar», «ahogar» y aquellos que llevan el diptongo ue precedido de otra vocal.
- 3.11.- Las palabras que comienzan por horr-, horm-, horn- se escriben con h.
- 3.12.- Se escriben con h las palabras que comienzan por holg-.
- 3.13.- Las palabras que comienzan por herm-, hern-.
- 3.14.- Las palabras que empiezan por za- o mo- seguidas de vocal se escriben con -h- intercalada.
- 3.15.- Los compuestos de hecto, hepta, hexa, hemi, helio.
- 3.16.- Las interjecciones ah, eh, hala, bah, hola, hu, huy, y el adverbio ahí.
-

Eta zera jakin nahi nuke nik: errazagoa da 'las palabras que comienzan por hosp-' ikastea 'hospicio, hospital, hospedar' h-rekin ikasi behar direla baino? Merezi du 2.11 bezalakoak ikastea? '2.9.- Las palabras que comienzan por ave-, eve-, eva-, evi-, evo-' Eta 'avo, evu... hasten direnak? Nola arrasto ikasten da ' Las palabras que comienzan por el diptongo hue- se escribirán siempre con h; pero, en el caso de que una palabra relacionada con la familia léxica comience por o-, esta voz se escribirá sin la h'? Horrek adierazten du nire lehengo kezka, ortografia barik etimologia eta lexikologia ikasi beharko genukeela alegia; edo latina (Las palabras que en latín se escribían con f- inicial o que en castellano están relacionadas con otras que lleven la f- se escriben con h- inicial).

Eta abar

Jakina da arau konplikatu hori baino errazagoak egin daitezkeela, baina orduan beti izango ditugu salbuespenak eta ez gara iritsiko arau unibertsal absolutura (didaktikaz ari gara hemen).

Beraz, uste dut egokiagoa dela oinarritzko arauak ikaslaraztea (denok dakizkigunak) eta ikasleei arau horietatik kanpo beste mila arazo izan daitezkeela (hizkuntza bera konplexua da). Azken arazo honi aurre egiteko bi dira bideak ikaslearentzat:

- (a) kontsulta egitea (hiztegian)
- (b) irakurtzea (ereduaz jabetzea)

Eta irakaslearentzat

- (a) hiztegian kontsulta egiten irakastea
- (b) irakurtzera bultzatzea
- (c) hutsak zuzentzea, eta zuzentzea eta zuzentzea...

Iritziak iritzi...

Ortografia (4)

Oharrak

Aurreko fitxetan adierazi dut ortografia finkatzeko orduan lehentasuna ematen zaiola usadioari etimologiaren aurretik ('murciélago / murciégalo, ospitale / (h)ospitale...'). Baina badira bi kontutxo ahaztu ezin daitezkeenak:

(1) Tradizioa zehazten ez da erraza (hitz eginak gara lehenago ere horretaz). Gaur egungo euskaldun gehienei, gure tradizioa eta gure literatura eta gure orain arteko idatzizko usadioa ezagutu gabe erdarazkoa guztiz naturala gertatzen zaien euskaldun horiei, ezagunago gertatzen zaie 'hospitala' harako 'ospitale' baino. Era berean, euskaldun sortu eta hazi garen asko eta askori ezagunagoa eta 'normalagoa' gertatzen zaigu 'Pamplonara joan da' harako 'Iruñera joan da' baino. Eta horixe da auzia, ea tradizioa azken berrogeita hamar urte diglosiko hauei begira ezarri nahi dugun edo...

(2) Zientzia eta teknikan, kulturaren eta eredu jasoko esparruetan erabiltzen diren hitz asko (euskaraz orain arte ia erabili ez direnak) nazioarteko usadioari begira erabakitzen dira (euskaraz tradizio sendorik ez dagoelako). Eta nazioarteko forma hori maiz ez dator bat gaztelaniak darabilen forma murriztu edo egokituarekin. Horrela, euskara batu idatzirako:

pneumonia, pneumatiko (autoarena)
psikologia, psikiatria
esparatrapu, gaza (sendagarria)
eta abar

baina: errugbi...

(3) Beste batzuk:

jardun, jardunaldi, jarduera, jardunbidea...
hats, hatsaldi, atsedea
aurrealde edo aurreko alde, atzealde edo atzeko alde...
aurreikusi

Kontuz ibili beharko dugu, bada, eta hitzak banan-banan kontsultatu eta ikasi